

BALIO-PROPOSAMENA

Seguruenik, etxeko giltzak aurkitzen ez dituzun eta non utzi dituzun gogoratzen ez duzun une hori buruan izango duzu. Berdin autoarekin. Edo zure txakurra parkean aske utzi zenuen egun hori... eta 3 ordu eman zenituen bila.

Mundu guztiari gertatzen zaio, eta hori ukatzen duena gezurti hutsa da: gizakion naturan dago gauzak galtzea. Egia da, batzuek beste batzuek baino gauza gehiago galtzen dituztela (bereziki pertsona adintsuek baita alzheimer duten pertsonak ere). Baina aipatutako egoera guztietarako badago irtenbide bat, eta UBICAP da.

Diru zorroa galtzeko beldur garela? UBICAP txip bat kremailerari lotuta eta prest. Oso emanak garela saltoki-gune batera joan eta gero 40 minutuz autoaren bila? Arazorik gabe, txip bat jartzen dugu autoan, eta 5 minutuan aurkitzen dugu.

UBICAP atxikitzen zaion edozein objekturen **lokalizatzaile** bihurtzen da. Gainera, ez kezkatu mantentze-lanez 2 urte igaro arte. Behin epe hori igarota, txipak txistu baten bidez ohartaraziko du bateria aldatu behar dela.

Baina haren funtzioak erabiltzeko, gure smartphonean instalatu behar dugun doako **aplikazioa** behar dugu, Android zein IOS sistemetarako eskuragarri dagoena. Horrekin, galdu zaigun edozer aurkitu ahal izango dugu. Aplikazio honen erabilera guztiz sinplea da, galdutako ondasunetik gertu gaudela uste badugu "Sound On" aukera erabiliko dugu, soinuak eta bibrazioak igortzen dituen aurkitu arte. Leku urrun batean galdu dugula ziur bagaude, GPSa duen mapa bat erabili ahal izango dugu, non dagoen eta nola iritsi jakiteko.



UBICAP txipak behar guztiak asetzeko sortuta daude. Bereziki **erresistenteak** diren txipak aurki ditzakegu, giltzati gisa erabiltzeko edo gure maskota lepokoan jartzeko. Gainera, txipak osatzeko osagarri ugari ditugu baita tamaina ezberdinak ere.

Honelako txip batzuk eskaintzen dituzten beste enprekin konparatuta, guk produktuetan oinarritu ez ezik, pertsonetan ere oinarritzen gara.



Alzheimerra duten pertsonak bereziki garrantzia handia dute gure enpresaren egitekoak finkatzean, gaixotasun oso ohikoa bada ere, oso enpresa gutxik aintzat hartzen dituztelako pertsona horiek egunerokotasunean dituzten zailtasunak. Gure xedea ez da bakarrik

mozkinak lortzea, baizik eta arazo sozial honi aurre egitea ere.